GURE GAIAK

EUSKAL HIZTUNAK HIZKUNTZA OFIZIALEN GARAIAN: PARADISUTIK MUSEO TEMATIKOAREN INFERNURA, EUSKARAREN ALDEKO ETA AURKAKOEN EZTABAIDA GIROAN (1794-1919)

SARRERA

Euskal mundua eta euskal hiztunak, iraganean, Paradisuan omen ziren euskaraz barra-barra hizketan. Baina noizkoa ote da Paradisua? Dilubioaren eta Babeleko dorrearen ondoko hizkuntzen zabalkundea baino lehenagokoa, jakina. XIX. mendean, P. Astarloaren garaian, historiaren kontakizuna Biblian idatzitakotik abiatzen zen eta gaur egun metahistoriatzat hartzen dugu. Etenbako eurite edo dilubioaren ondoren, lehorrean, Tubal Espainiako penintsulara etorri omen zen eta haren ondorengo zuzen-zuzenak euskaldunak izan omen ziren. Duela 4.000 urte inguru jazo omen ziren gertakizunok Bibliak edo liburu sakratuak adierazi bezala, eta XIX. mendearen erdialdeko ondoko mapan ageri da marrazturik.

XX. mendearen hasieran, 1901ean, M. Unamunok proposatu zuen euskal hiztunak ikerketarako kontserbatu behar zirela, hain hizkuntza berezi eta ederraren lekuko gisa, hizkuntzalari eta bestelako enparauentzat. Baina beste horrenbeste pentsatzen zuten hizkuntza enblematikoaren aldekoek, adibidez, Bilboko Centro Vascon biltzen ziren euskal abertzale ugarik ere. Pompeu Fabrak, hizkuntzalari katalan ezagunak, Bilboko ingeniarien eskolan irakasle zegoela, 1904ean, bertatik bertara ikusi eta arakatu zuen euskal abertzaleen giroa Bilbon ez zela euskaraz garatzen.

Honezkero, XXI. mendean, baditugu eraikin ederrak, museo ederrak, zein baino zein bikainagoa, munduan barrena ezagun-ezaguna bihurtu zaiguna ere tarteko, Bilbokoa alegia, eta hara non euskaldunen

1~9. EUSKAL HIZTUNAK HIZKUNTZA OFIZIALEN GARAIAN: PARADISUTIK MUSEO TEMATIKOAREN INFERNURA, EUSKARAREN ALDEKO ETA AURKAKOEN EZTABAIDA GIROAN (1794-1919). JOSEBA AGIRREAZKUENAGA

JOSEBA AGIRREAZKUENAGA

GAUR EGUNGO HISTORIAKO KATEDRADUNA.
UPV-EHU

hizkuntza-berezitasun bitxi eta eder horrek izen ofizialean tokia hartu duen, Museoa deitzen baita. Baionan ere euskal museoa berriztatu da, baina, aldi berean, Ipar Euskal Herri osoa museo eder baten itxura hartzen ari da eta, parke tematiko horretan, oraindik ere euskal hiztun bereziak aurki daitezke, ofizialtasunetik at, jakina, Lapurdiko hiriburu izan zen Uztaritzen ageri denez gero. Agian, etorkizunean, euskal hiztun batzuk museo batean gordetzeko espezimen erakargarriak izan gaitezke. Horixe dugu XXI. mendearen egoera Euskal Herriko hainbat hirigunetan eta horretan dirau euskal hiztunen zalantzazko etorkizunak. Euskararen aurkari eta aldekoen azterketa egitea eskatu didate eta garai batera mugatu nahi izan dut: estatu-nazio egituraren sorrera eta garapena Europan barrena gertatu zen garaian kokatu nahi dut egitekoa, egitura berri horietan hizkuntza ofizialaren ideologia erabat legez eta indarrez errotu eta zabaldu zelako estatu-nazioen egituretan. Une horretan, euskal hiztunak ofizialtasunetik at zeuden, ez ziren inon ageri.

Euskararen ofizialtasunaren kronika, Erdi Arotik gaur egunera, Joseba Intxaustik argitaratu zuen 2007an, *Euskera* aldizkarian. Euskararen historia juridikoa ere Xabier Irujok eta Iñigo Urrutiak argitaratu berri dute (2014).

Baina zergatik euskal hiztunak, euskaldunak, Paradisuan izatetik Museoan bukatzera murgildu dira? Kontakizunak asmatu izan ohi dira, euskararen alde edo aurka egiteko. Usteak, asmoak, grinak… gure historiaren zati dira eta kontakizunetan ageri zaizkigu. Hauxe azaltzen saiatuko naiz ondoko lerrootan datu zehatzetan oinarrituz eta euskararen inguruko diskurtsoak eta usteak abiapuntutzat harturik. 125 urte inguruko ibilbidea izango da, Frantziako Iraultzatik administrazio publikoko agintariak euskararen ofizialtasuna aldarrikatzen hasi ziren garaira artekoa, 1919ra artekoa, hain zuzen. Urte horretakoa dugu Euskaltzaindiaren sorrera erakunde legez.

Euskararen aldekoen eta aurkakoen arteko distantzia, batzuetan, ez dirudi hain urrunekoa denik, gaia pentsamendu ahularen garai horren testuinguruan jorratuz gero, behintzat. Museo bizi eta distiratsu batean irautea, agian, ez da soluziobiderik ankerrena agintari eta pertsona askorentzat. Aurrez aurreko aurkariak bazterrean egon arren, berezko egitekoaren aldekoak, *laissez faire* delakoaren aldeko bihurtu ziren garai horietan euskararen aurkarien eremuan, kementsuenak.

Hala ere, XIX. mendearen hasieran, 1802an, Tragiak, Espainiako Historiako Errege Akademiako kideak euskararen antzinatea ukatu zuelarik, euskararen aldeko apologistak oldartu ziren. Baina antzinatearen eztabaidaren azpian autogobernuaren agintearen oinarrietarako printzipio ideologikoa ezkutatzen zen, Godoyren aginduz, Foruen bidezko autogobernua murrizteko garaia abiatu baitzen, erregearen agintaritzaren eta, beraz, Madrilgo Gortearen bidezko agintea Euskal Herrian ere sustatzeko asmoz. Lege zaharrean hasitako eztabaida horrek XIX. mende osoan iraun zuen. Baina bereziki lehen erdialdean, eta orduan paratu ziren euskaltasun edo euskaltzaletasun politikoaren oinarriak, euskara eta foruen bidezko autogobernuaren arteko lotura uztarturik. P. P. Astarloa, Bizenta Mogel, P. Ulibarri, lege zaharreko ildoko testuinguruan, A. Pascual Iturriaga eta J.I. Iztueta liberalen ikuspegitik, ditugu eztabaida horretan, besteak beste, idazle eta euskararen aldeko eragile zuzenak. Eta J.I. Iztuetak bertsoz adierazi zuen, euskara, foruak eta dantza nortasun politikoaren adierazle gisa: "*Euskara piztea da erdaldunen*

Baina zergatik euskal hiztunak, euskaldunak, Paradisuan izatetik Museoan bukatzera murgildu dira?

mina/Ez dakit nondik duten horrelako grina/Mundu guzian dago sustraiak egina/Hitz egin ohi zalako bera txit antzina". (Gipuzkoako Dantzak, 1824)

Frantziako iraultzaren hasieran, Frantziako Erresumako hizkuntza guztiak erabiltzen hasi ziren biztanle gehienek frantsesa ez zutelako ulertzen. Baina 1794an, agintari berriek hizkuntza ofizial bakarraren ideologia jarri zuten indarrean

AGINTARI IRAULTZAILEEN PLAZA PUBLIKOTIK ESPARRU POETIKOAREN TXOKORA: 1789-1852

Frantziako iraultzaren dinamikan, agintari berriak Frantziako Erresumako hizkuntza guztiak erabiltzen hasi ziren biztanle gehienek frantsesa ez zutelako ulertzen. Ipar Euskal Herrian aginduak euskaraz ere argitaratzen ziren eta bazirudien gizarte berrian euskal hiztunek euskaraz jarduteko aukera izango zutela. Baina 1794an, iraultzaren aurkakoak Europan antolatu ziren eta Frantziako Errepublikan berdintasuna eta giza eskubideak aldarrikatu ostean, agintari berriek hizkuntza ofizial bakarraren ideologia jarri zuten indarrean. Hizkuntza mekanikaren pareko tresna zela uste zutelako. Gizartean berdintasuna bermatzeko hizkuntza bakarra behar zen, halabeharrez. Berdintasunaren goiburua nagusia izanik, Frantziaren kasuan frantsesa hautatu zen. Eta bestelako hizkuntzak baztertzeko asmoz, ideologia asmatu zen: Hizkera eta hiztun bakoitza halabeharrez, mekanikoki, sailkatua eta menperatua suertatzen zen: euskal hiztunak, euskaraz mintzatzerakoan, halabeharrez, fanatiko bihurtzen ziren eta federalismoa, jauntxokeria eta hizkuntz ugaritasuna gauza berdintzat jotzen zen. Osasun publikorako batzordeko kide zen Bertand Barère de Viuzac jaunak, bere lehen hizkuntza gaskoia izan zuenak, hauxe idatzi zuen: "*Le fédéralisme et la superstition parlent bas -breton; l'émigration et la haine de la République parlent allemand; la contre-révolution parle l'italien, et le fanatisme parle le basque. Cassons ces instruments de dommage et d'erreur".* Beraz, estatu-nazio berrietan, erabateko hiritar jator bihurtzeko, hiritar abstraktu eta inpolutua, halabeharrez nazio berriaren hizkuntza ofiziala ezagutu behar zuen norbanakoak, giza eskubideen jabe nahi bazuen izan. Eskubideen hizkuntza berria, egiazkoa, bat eta bakarra zelako. Dena dela, gertaera berritzaile hori haren testuinguruan ulertzeko ahaleginetan, esan beharra dago iraultzaileek bazutela beste arrazoi praktiko eta finantzario bat hartu zuten erabakia hartzeko: Iraultzaren hasieran, hainbat itzulpen-kontratu eginda zituzten iraultzaileen agindu berriak hainbat hizkuntzatan argitaratzeko. Baina itzultzaileen erabateko kontrola ez zuten agintari iraultzaileek. Hizkuntzak guztiz estandarizaturik ez zeudenez, egindako itzulpenetako mezuez mesfidati ziren agintari nagusiak eta, horrez gain, faktura garestiak ordaindu behar izaten zituzten. Beraz, hizkuntza bakarra hautatu eta kitto. Frantsesa ez, beste guztiak ahateen ezin ulertuzko hizkerak eta hizketak ziren. Gainera, aurrerantzean, agintari politikoek adieraziko zuten hizkera eta hizkuntzaren arteko muga non zegoen. Handik aurrera, hizkuntza ez normalizatu eta ez ofizialentzat, esparru poetikoa eta literaturakoa besterik ez zen gordeko.

Espainiako Erresuma eta nazio berriari gagozkiola (1812), Cadizeko Konstituzioan ez zen hizkuntzari buruz ezer adierazi, ez eta Espainiako ondorengo konstituzioetan ere, 1931. urtera arte. Baina agintarien hizkuntza gaztelania zen, penintsulan eta Ameriketan hizkuntza ugari izan arren. Argi dago agintaritzak ebazten duela ofizialtasuna. XIX. mendean barrena, estatu-nazioaren esparru publikoan hizkuntza bat besterik ez zen erabiltzen. Eta hiztunak markatuak ageri dira. Hiztunak hizkuntzaren arabera sailkatzen ziren eta klaseen arteko ikurraren adierazle ere bihurtu zen hizkuntza. Plaza publiko eta giro politiko berrian, euskal hiztunak markatuta ageri ziren eta, gehienbat, paradisuko hizkuntza zenez gero, gordetzea ondo zegoen, baina Museoa zen beraren lekua, Unamunok 1901ean, Bilboko Arriaga antzokian adierazi bezala.

Euskara ez zen hizkuntza, hizkera baizik, ez zelako erabiltzen era kultu eta jasoan, estandarizatu gabeko hizkuntza zen. Euskalkien araberako tradizio literario hainbat zeuden eta euskara batua adostu gabe artean. Lapurdiko tradizioan, J. Etxeberrik, XVIII. mendearen hasieran, eta ondoren, Dominique J. Garat iraultzaileak, 1810ean, euskararen gabeziak

eta euskara baturik eza agertu eta euskara estandarizatuaren premia aldarrikatu zuten. Baina non zegoen euskal agintaritza? Herrialdez herrialde egon bazegoen eta Nafarroako Erresuman ere bai. Hegoaldean, oinarrizko eskoletan, gurasoen erabakiz antolatzen ziren eskoletan, gaztelania ikastea zen helburua 1818an, eta J.A. Zamakolak *Historia de las Naciones Vascas* delako liburuan salatu zuen egoera hori.

Estatu-nazio berriak, administrazio publikoaren beste hainbat arlotan bezalaxe, Eliza katolikoaren zuzenbidean oinarritu ziren: Eliza unibertsalean, harreman-hizkuntza estandarra latina zen, baina herritarrekin beste mintzaira batzuk onartzen eta lantzen ziren. Hizkuntza sakratua latina zen, Paradisuko garaian euskara izan arren. Baina Jainkoak era guztietako hizkuntzak ulertzen zituen eta Jainkoarekiko harremana edozein mintzairatan egiteko aldarria XVI. mendeaz geroztik indartu zen eta, beraz, euskara ere landu behar zen; Axularrek jaso eta goratu egin zuen, erabiltzen hasi zelako.

Beraz, hizkuntzak ikur politiko bihurtzen zaizkigu ofizial izendatu ahala eta hizkuntzen politizazioa, beste barik, erantsirik doakio erabakiari. Hizkuntzen erabilera eta arauketa politikatik at daudela adieraztea zentzurik gabeko esaldi hutsala da, berezkoa baita, eta horrela hartu behar da, politika plaza publikoan gertatzen den guztia baita. Unescoren atlasaren arabera, Europan 114 hizkuntza galtzear daude, 5 Espainian eta 26 Frantzian.

Horrezkero, agintariek aginte-hizkuntza ezarri eta euren kontakizuna asmatu zuten. Iragana aldatzerik ez dago, baina iraganean gertaturikoak zentzu eta interpretazio edo ikuspegi desberdinez azter daitezke.

XVIII. mendean, euskara Batzar Nagusietan, Elizan, epaitegietan eta abarretan erabiltzen zen. Araban gertatu zen atzerapenik handiena. Hala ere, bizi-bizirik zegoen hirietan eta, XIX. mendean, euskara hiri-hizkuntza ere bazen, erabat bizia eta bizitzaren arlo guztietan erabili ohi zena. Euskaldunak, beraz, menditarrak eta hiritarrak ere baziren. Eta giro horretan, XIX. mendearen hasieran, euskaldunen ageriko arketipoak ondokoak ziren:

- Handikia: agintaria, jantzia, peluka erabili ohi zuena, jakituriaz kezkatua, helburutzat aurrerapena, arrazoia eta tolerantzia zituena. Elkartea sortu zuten 1764an eta horietako handiki batzuek euskara goi-mailako hizkuntza kultu bihurtzeko helburua izan zuten. Beste batzuek, aldiz, gaztelaniaren irakaskuntza ezarri nahi izan zuten eskoletan profesionaltasunaren mesedetan. Dena dela, handikiaren funtzioak ongi betetzeko, bi hizkuntzaren jabe izatea halabeharrezkoa zen, batik bat, euskara eta gaztelaniarena, bai eta frantsesarena ere, handikiari bitartekaritza lana egitea zegokiolako. 1765ean, Gasteizko batzarrean onarturiko estatutuetan, IX. atalean, zera esaten zen: "*se aplicaran a pulir y cultibar la lengua Bascongada, o recopilar lo mas raro y escogido que haya escrito en ella, asi en prosa, como en verso y a perfeccionar la poesia Bascongada".* Geroago, Espainiako errege Karlos III.ak onartutako estatutuen VI. atalean, zuzenketa hau erantsi zen: *"Comisión de historia, política y buenas letras"* saila antolatu zen eta haren zereginetariko bat hauxe izan zen: "*dedicarse a la Historia y Geografia Nacional, y a la lengua y poesía Bascongada".*
- "Jende xehea" edo populua, matxinadetan adierazpen bortitzak egin ohi zituena. Jende arrunta, gehiengoa osatzen zuena. Handikien aldean, munduaren inguruko bestelako ikuskera zuten biztanleak. Bizitzea borrokatzea zen, eta halabeharrez aritu behar ziren euren kabuz. Baina Euskal Herrian ondo baino hobeto erroturik zituzten foruei atxikitako uste sendo bi: inor ez dagoela inoren gainetik, bata, eta ekonomia printzipio moraletan oinarritu behar zela, bestea. Haien iritziz, albokoen lepotik lorturiko aberastasuna ez zen zilegia eta, horregatik, ekonomia liberalaren aurka altxatzen ziren.

Literaturan ere aurki ditzakegu euskaldunen arketipoak, batetik, Peru Abarkan, eta bestetik, Peru eta Marixeren ipuinetan, Anjel Lertxundi idazleak azpimarratu bezala.

Hizkuntzak ikur politiko bihurtzen zaizkigu ofizial izendatu ahala eta hizkuntzen politizazioa, beste barik, erantsirik doakio erabakiari

Juan Ignazio Iztuetaren biografiak ondo betetzen ditu bi arketipoak, pertsona berberak bete ere. Hasiera batean, J.I. Iztueta populuaren ikuspegitik hazia eta hezia izan zen, ez zuen apaizen nagusitza onartzen, ez eta predikatzen zuten morala ere. Napoleonen jarraitzaileen alde jarri zen handikiek egin ohi zuten bezala, eta bizitzaren azken aldean adituen arteko kide bilakatu zen. Kultura jasoa landu zuen, baina herritarrena goratzen, eta euskaltzale sutsua zelarik, euskara euskal nortasunaren oinarri bihurtu zuen, historiaren kontakizunaren baitan.

Hizkuntza eta historiaren kontakizunaren azalpena erabat loturik ageri zaizkigu, halabeharrez, estatu-nazio berriek iraganaren eta etorkizunaren arteko kontakizuna berrasmatzeko premian zeudelako

Hizkuntza eta historiaren kontakizunaren azalpena erabat loturik ageri zaizkigu, halabeharrez, estatu-nazio berriek iraganaren eta etorkizunaren arteko kontakizuna berrasmatzeko premian zeudelako. Hala, Europako estatu-nazio berrietan, historiaren kontakizun berriak asmatu ziren. Historia handiaren olatuan kokatu ziren herri-nazio batzuk eta, aldi berean, historiarik gabeko herriak. 1897an, Donibane Lohizuneko euskal tradizioaren kongresuan, A. Planték, *Société des Sciences, Lettres et Arts de Pau* zeritzon erakundeko presidentearen hitzaldi nagusiak honako izenburua zeraman: *Euskaldunak, historiarik ba ote?* Eta hara abiapuntua: "*Emakumezkoen antzekoak omen dira, izan bai, baina ez da nabaria eta nabarmentzekoa*". Ondotik, baina, euskal nazionalitatearen nortasunaz egin zituen gogoetak. Historia txikia, etxekoa, ukaezina omen zen, eta euskara esparru horretarako baino ez zen. Eta itsaso zabaletako historia handian nabigatzeko egokia ez zenez gero, etxekoen hizkuntzatzat goratzen zen, esparru pribatuko erlijioaren antzera. Giro horretan, XIX. mendean, paradoxa berria sortu zen gurean: buruzagi eta herritar gehienak euskararen aldekoak izan arren, euskararen eta euskal hiztunen folklorizazioa eta bazterketa gertatu zen XIX. mendearen bukaeran, industriaren iraultzaren ingurumarian. Euskal hiztunek gehiengoa osatzea Euskal Herrian, agian, ez zen aski izan, bederen, Euskal Herriko plaza publikoan hizkuntza ofizial bihurtzeko. Ekintzan eta ekintzabidean dugu sakoneko gakoa, paradoxa argitu nahi bada. Iragana aldatzerik ez dago, baina iraganean gertaturikoak zentzu eta interpretazio edo ikuspegi desberdinez azter daitezke, eta euskal hiztunen eskubideak tarteko, gizakiak baitziren, badugu zer birpentsatu eta zer aztertu.

Euskararen aldeko kontakizun desberdinak asmatu ziren XIX. mendean. Adibidez, "Euskara aberria da, ia-ia erlijioa" (Victor Hugo, 1843, Alpes et Pyrénées) euskaldun menditarrentzat zein kaletarrentzat, V. Hugo bi eremuetan ibili zelako, baina XIX. mendearen bigarren erdian hizkuntza esparru publikoan gainbehera abiatu zela ezin izan zuen ukatu.

Pablo Astarloak euskararen apologia idatzi zuen (1803) eta J.B. Errok paradisuko hizkuntza sakratu bihurtu zuen 1815ean. Gorosabelek idatzi zuen *gehiegikeria horiek…* "*esfuerzos que deben considerarse como sentimiento de nacionalidad, muy plausibles ciertamente, aunque llevados a una exageración*" (P. Gorosabel, *Noticias de las cosas memorables de Guipuzcoa*, libro II, 1868). Beraz, XIX. mendean bertan, jadanik, ustezko kontakizuna eta historia kritikoaren artean muga bazegoela agerikoa zen. Baina kontakizunak berak funtzio soziala eta politikoa betetzen du eta delako istorioaren zergatian sakontzera behartzen gaitu.

XIX. mendean, jadanik, foruen bidezko egituraketa politiko eta sozialean, bazterreko hizkuntza zen euskara, ofizialtasunik gabekoa eta, hala ere, egoerari aurre egiteko, ipuin eta kontakizun sakratuaren bidez babestu nahi izan ziren euskararen prestigioa eta iraupena. Horrez gain, euskararen antzinatea mitoa zen tesi politikoetan foruen bidezko agintea oinarritzeko. Horretan guztian, euskararen aldeko apologistek gaztelaniaz idazten zuten, eztabaida publikoa gaztelaniaz zelako.

Baina euskaraz ere idatzi zen Abando eta Bilbo aldean. Pablo Astarloaren anaiak, Pedro Astarloak, euskararen aldeko manifestua idatzi zuen eta historia unibertsalaren kontakizunaren barruan, euskaldun jendea erdigunean jarri zuen euskararen defentsaren nortasun ikurra zelarik. Sermoien liburuaren sarreran, kontakizun euskaltzalearen ikuspegia dakusagu, 1818an mamitua. Euskal populuaren historia berria asmatzen hasi ziren eta, horrela, *Antxinako*

Euskaldunen alabantzak izeneko poeman, gerra esperientzia gogorren erasoaldiak jasan ondoren (Konbentzioko armada errepublikanoa (1794-1795) eta Napoleonen armada (1807-1813)) euskal historiaren interpretazio jatorra eta sakratua, Biblian oinarritua, asmatu zuen. Honela hasten zen: "*Jaunaren lege ona/euskeran da sendo/Adan-eganik ona/garbi eta ondo/ Gorde izan da beti/garbiro fedea/baita geure legeak/ eta berbeitea/ Erbestetar gaiztoak/nahi eukezan galdu/euskaldunak eztabe/bururik makurtu/ beste herri askotan/jaretxi arren hau/eztau inoz guretan/kanpokoak agintau/(...)Zergaitik deritxazu/hainbeste neke lan/euskaldunen artean/beti hartu joian?/ Gordetearren zintzoro/jaunaren fedea/geure lege garbiak/geure euskerea/*"(1818). Ildo beretik, Bizenta Mogelek 1819an antzeko bertsoak errepikatu zituen. Baina 1819ko bertsoetan, Bizentak Bilbo aldeko gizartearen barne arazoak ere begiratu zituen eta gizonen portaerak kritikatu: "*Taberna zokuetan/ jokuan sarturik/eta duaz etxera/ondo moskorturik./ Etxian heldu eta/han bere ez bakerik/emazte ta umiak/igesi etxetik/ Oraingo Gabonetan/hau da ikusten dana/Honetara heldu da/gure itsumena".* (1819).

Kontrairaultza liberalaren pentsamoldearen harian, Abandoko euskaltzaleak euskaldunen historia eta nortasuna euskaraz burutzen saiatu ziren (P. Ulibarri, Bizenta Mogel). Hor bai ageri zaigu pentsamoldea eta euskaltasun eredu jakin bat uztarturik.

Aldi berean, liberalek ere asmatu zuten euskal historia berria aurreramenduaren ideian oinarriturik. Horrela, Batzar Nagusietako ordezkariek Baionako bilkuran (1808), bereziki, J.J. Yandiolak, independentzian oinarrituriko diskurtsoa egin zuen Napoleonen aurrean, ohiko autogobernuak bere horretan iraun zezan, edo Juan Antonio Zamakolak, Bilbon ere masoi lagunak zituenak, *Euskal nazioen historia* argitaratu zuen 1818an, atzerrian (Frantzian), Bonaparteren aldekoa izan zelako. Europa berri, aske eta anaidian elkartua aldarrikatzen zuen. Beranduago, A. Pascual Iturriagak, ikuspegi liberaletik, Gipuzkoako Batzar Nagusien aginduz, euskara biziberritzeko plangintza burutu zuen, industriagintza eta garapen ekonomikoaren baitan, osotasunean pentsaturik (1830). Agustin Pascual Iturriagaren tesia bazen agintarien hizkuntza bihurtzen dela indartsuena eta hizkuntzaren erabilerak bermatzen duela bere biziraupena: "*Ya hemos probado que las lenguas dominantes prevalecen sobre las que no lo son porque se cultivan con preferencia a ellas. Cultivemos el vascuence".*

Herritarren arteko gerra luzea, aurrez aurrekoa, piztu zuten karlistek, 1833an, Bergarako ituna sinatu arte, 1839an, Erresuma Batuko ordezkarien bitartekaritza izan zela medio. J. I. Iztuetak euskaraz idatzi zuen hurbil-hurbiletik eta gerra giro horretan, liberalen esparruan, herritartasuna euskal nazionalitatearen adierazle gisa interpretatzen hasi zen, euskal liberalen esparruan (1836, Bizkaiko Diputazioa). Gerra garaian, euskarazko bertsoak eta testuak azaldu ziren propaganda politikoa burutzeko premiazkoa zelako. Aurrerantzean, Espainiako estatunazio egituraketak sendotu egin ziren.

Kontrairaultza liberalaren pentsamoldearen harian, Abandoko euskaltzaleak euskaldunen historia eta nortasuna euskaraz burutzen saiatu ziren. Hor bai ageri zaigu pentsamoldea eta euskaltasun eredu jakin bat uztarturik

J.I. Iztuetak azkenik idatzi zuen sakoneko gogoeta politikoa, bere bizitzaren testamentu gisa, izandako esperientzian oinarriturik (Iztueta, 1847). Hitzaurrean, Astarloaren hariari jarraituz, adierazi zuen gipuzkoarrak "*erbestekoen uztarripean inoiz ere egon bagekoak*" zirela. Eskola maisu erdaldunen aurka egin zuen eta, azkenik, honako gogoeta egin: "*Gipuzkoako biztanle prestu guztiak badakite argiroki beren zoriona datorkiotela jatorriz dituzten Fuero honeskietatik.(...) Fueroak beren oinean irozotzeko kirtenik irmeena eta euskarririk seguruena da Euskarazko hizkuntzari ondo kontu egitea (...) Euskara hil ezkero Fueroak ez dira biziko; baina Euskara bizi bada, Fueroak piztuko dira Fueroak nahi dituanak, maite izan behar du Euskara eta Euskara maite dabenak Euskaldunai euskaraz behar die hitzegin eta adierazo (...) bestela zapuztuko da Euskara, muishinduko dira Euskaldunak eta ihes egingo dute Fueroak".* Gogoeta horren benetakotasuna XX. mendean barrena frogatu zen eta euskaltzaletasun politikoaren adierazpen goren eta garrantzitsu gisa hartu behar dugu.

Garai berean, euskal nazionalitateaz gogoeta politikoak egin ziren; 1840ko hamarkadan, Bilboaldea hiri euskalduna zen baina komunikabideak eta abar gaztelaniaz argitaratzen ziren. *Irurac Bat* egunkariko lehen alean (1856) editoriala euskaraz eta gaztelaniaz argitaratu zen. Euskararen goraipamena egiten zen, baina *Irurac Bat* gaztelerazko egunkaria izan zen. Bilbon, 1860ko hamarkadan, *Euscalduna* izeneko beste egunkari bat bazen, ikuspegi tradizionalistatik abiatuta; biak ala biak lehian ari ziren baina azkena ere gaztelaniaz argitaratu zen. Garai berean, ahozko tradizioa bizi-bizi zegoen eta Xenpelar bertsolariaren ekitaldiak eta Iparragirreren kantaldiak euskaldunen ikur eta eredu bihurtu ziren.

> "*El euskara es, pues, elemento esencial de la nación euskaldun; sin él, las instituciones de ésta son imposibles. La desaparición del euskara causaría irremisiblemente la ruina de aquella nación"* (Arana, S. El proyecto de Academia Bascongada, 1886)

URRUÑA-SARAKO KOPLARIAK ETA "BERTSUETAKO GUDUAK" (1851-1879)

1851n, Anton Abadiak Urruñan pilota partidurako deia egin zuen eta, aldi berean, bertsoak kantatu ziren. "*Mila zortzi ehun eta berrogoita hameka/ Urruñan gertatu da oraiko sujeta/ Pilota partida bat izan da xarmanta/Xoria bezain arin zabilan pilota/ Kaskoinak errefera Autziatzek bota/Aisa irabazi dute Espainolen kontra."* Egitasmo politiko gabeko euskararekiko maitasuna omen zuten helburu eta ustezko uste horretan oinarriturik garatu ziren jaialdiak Ipar Euskal Herrian. Baina 1874an, karlisten aldeko poema batek irabazi zuen: "Jaungoikoa eta Erriya" J. I. Arana jesuitak idatzia eta karlismoaren ikuspegira lerrotua.

Euskal literaturaren loratzea zegoen bitartean, 1857tik eskola publikoetan irakasleek gaztelaniaz jarduten zuten, administrazio publiko berriak horrela agindurik. Hiru diputazioek errekurtsoa eta protesta egin arren, bi administrazio publikoen arteko lehia gogorra zen: foruen bidezkoa, bata, eta Espainiako Erresumako administrazio periferikoa, bestea. 1864an, Euskararen katedra indarrean jartzeko eskatu zen Gernikan, Bizkaiko Batzar Nagusietan, eta 1841ean ere berriro egin zuten eskaera honela justifikatuta: "*allí donde concluye la lengua de los pueblos concluye su nacionalidad*" Alejandro Rodriguez-Angel Maria de Ventades-Juan Antonio de Menchaca. Foruzaleen mugimenduaren baitan, euskaltzaleak ageri ziren buruzagien artean, adibidez, P. Novia de Salcedo.

FORUEN BIDEZKO AGINTEA GALDU ONDOREN EUSKARA BAINO EZ

1873an, A. Canovas del Castillok azaldu zuen euskara ez dela bizitza modernorako hizkuntza egokia, baina Batzar Nagusietan bestela jokatzen zen. Horregatik, Batzar Nagusiak erabat desegitea agindu zuen 1877an, bai eta Foruen bidezko erakunde publiko oro. Euskal liberalek, gerra irabazi ondoren, ez zuten bidezkotzat jo foru erakundeak desagerraraztea. Eta Abadiaren ekimenez antolatutako Iparraldeko Lore Jokoen jaialdia Elizondon antolatu zuten euskara elkartekoekin batera (1879). F. Arrese Beitia irabazle atera zen eta euskara hartu zuen euskal aberriaren azken esparrutzat, Iztuetaren hariari jarraituz: "Ama Euskeriari azken agurrak". 1877ko urteaz geroztik, egitasmo politikoaren oinarriak euskaldundu zirenean, euskal abertzaletasunaren lehen garapena gertatu zen: Iruñeko Euskara elkartea, Euskalerriakoak eta S. Aranaren abertzale jeltzaleak. Zazpiak bat egitasmoa Manterolak aldarrikatu zuen Donostian, *Euskal Erria* aldizkarian, 1879an. Donostiako *"Euskal hitz jostaldien Batzarrea"* antolatu zen izkribatzaileak euskal hizkuntzan saiatzeko eta lehiaketak egiteko. Hala ere, euskaldun gehientsuen ordezkapen politikoa karlisten bidez egiten zen.

1882ko uztailaren 30 eta 31n, Bilboko "Euskalerria" elkarteak, ildo liberalekoa, Euskal Herriko historia, legedia, ohiturak eta poesia lehiaketak antolatu zituen. Euskaraz, bertsolariak eta poesia lehiaketak, bestelako gaiak gaztelaniaz. Giro horretan, S. Arana gazteak bere apunteetan hauxe idatzi zuen: "*El euskara es, pues, elemento esencial de la nación euskaldun; sin él, las instituciones de ésta son imposibles. La desaparición del euskara causaría irremisiblemente la ruina de aquella nación"* (Arana, S. El proyecto de Academia Bascongada, 1886).

1896an, Bilboko Udala arduratu zen Bilboko Lore Jokoak antolatzeaz eta 1901eko abuztuan *El Sitio* elkarte liberala. Industriagintzaren ondorioz, zazpi kaleetako Bilbo hirigune metropolitano baterantz abiatzen zen. Jatorri eta era guztietako pertsonen topagune bihurtu zen hiri berria. Urte bat lehenago, 1900ean, Nazioarteko Eusko Ikaskuntzen Kongresua Parisen antolatu zen, 1900eko irailaren 2an, hain zuzen, Palais des Congrés delakoan. Julien Vinson izan zen kongresuaren buru eta aditu unibertsitarioen giroan, besteak beste, T. Aranzadi izan zen.

Bilboko Lore Jokoetan, M. Unamunok hitzaldi sonatua egin zuen (1901eko abuztuan) eta Euskal Herriko historiaren kontakizun berritzailea asmatu zuen, P. J. Astarloa eta Bizenta Mogelena eta beste euskaltzaleen begiradak eta kontakizuna erabat baztertuz eta euskararen auzia erdigunean jarri zuen, euskararen geroa alegia. "*El vascuence se extingue sin que haya fuerza humana que pueda impedir su extinción; muere por ley de vida. No nos apesadumbre que perezca su cuerpo, pues es para que mejor sobreviva su alma La mejor lengua es la propia, como es la mejor piel la que con uno se ha hecho, pero hay para muchos pueblos, como para otros organismos, épocas de muda. En ella estamos. En el milenario eusquera no cabe el pensamiento moderno; Bilbao hablando vascuence es un contrasentido. (…) el pensamiento que dormitaba cual crisálida en el vascuence de Axular (…) lo romperá y saldrá a bañarse en luz.*"

Baina euskararen auzia jokoan denean, ondoren auzi politikoa ere ageri da, hau da, agintearen auzia. 1802an, horrela gertatu zen Real Academia de la Historiak egin zituen argitalpenetan, foruen bidezko agintea ezabatzeko bidean jartzeko asmoz, eta 1901ean, estatu-nazio espainiarrak ezabaturik zituen jadanik autogobernuko aginteak eta euskararen aberriak soilik irauten zuen, lekurik gabe Espainiako aberrian. Bilbon, hau da, hiri modernoan, euskaraz mintzatzea kontraesana zela aldarrikatu zuen. Baina aldi berean, euskalarien historia ere ezagutzen zuenez gero, erronka bota zuen Unamunok eta, agian, horretan ezin ukatu bere gogoetaren balio erantsia. Ez dago euskara baturik eta, beraz, kultura moderno jasoan jarduterik. Azkuek erantzun zion gutun batean, euskararen modernizazioa bidez bide burutzen ari zela eta horretan saiatu egin behar zela, Unamuno bera gaztelaniazko modernizazioaz arduratzen ari zen bezalaxe.

Ikuspegi jatorraren inguruan sorturiko diskurtsoaren kritika ere dario hitzaldiari. Propioa, halabeharrez, ez da jatorrena eta erbestetik jasoa bereganatzea lortu ezkero, jatorra eta propioa ere bihur daiteke, eragingarri izanik biziberritze prozesuan. Azken batean, jatortasunak asmatu egiten direlako ibiliaren ibiliaz bizi garelako. Gai ugari, mende berrian behin eta berriro eztabaidagai.

1901eko irailean, Hendaian, Bilboko Lore Jokoak amaitu eta 20 egunen buruan, Euskal Herriko euskaltzale adituak bildu ziren, euskararen geroaz kezkaturik. A. Campion, R. M. Azkue, S. Arana eta beste asko izan ziren bertan. S. Aranak, 1901ean Hendaian egindako diskurtsoan, Unamunori erantzun zion[1] eta dirudienez, elkar ondo ezagutzen zutenez gero, zera idatzi zuen: Unamuno hori esateko eta aurkakoa defenditzeko gai zela, eta horregatik hobe zela bere horretan uztea[2]. Baina erabat konprenitu zuen Unamunok adierazi eta jaurti zuen erronka berria, agerikoa baitzen, euskaldunak "jebo" huts bihurtzen ari zirela, ofizialtasunetik eta, beraz, plaza publikotik at. Bilbo inguruko "txorierrietakoek" eta beste eskualdeetakoek oso ondo barneraturik zuten gizarteko egituraketa sozialean gora egiteko, halabeharrez, gaztelaniaz txukun eta euskal azenturik gabe egitea premiazkoa zela.

Bestetik, euskal abertzaleen Bilboko Centro Vascoko bazkideen artean, euskara armarria bezalakoa zen, ikurra besterik ez, antzinakoa, baina besterik ez. Bizitza modernotik kanpokoa, alegia.

La Vasconia aldizkarian, Buenos Aireseko hiri nagusian, 1901eko irailaren 20an argitaratu zen Unamunoren hitzaldiaren beste kritika bat, bai eta S. Aranak berak argitaratzen zuen *Euzkadi* aldizkarian ere, baina Arrandiagari idatzi zion gutunean adierazi zuen Unamuno estimatzen zuela eta haren perfil ideologiko eta psikologikoa zehaztu zuen[3]. S. Aranak, R. M. Azkuek bezalaxe, ondo ulertu zuen Unamunoren

Euskal abertzaleen ekimenez, euskara egitasmo politiko bihurtu zen

mezuaren erronka, "*habilitado asi el euzkera (sic) para acomodarse a las exigencia de la sociedad actual*". "*Hagamos los vascos que el uso del euzkera sea necesario en nuestra tierra si queremos que el euzkera (sic) viva*". Unamuno eta Aranaren diskurtsoak, azken batean, kanpora begira eginak daude, plaza publikoan eragina izateko. Azkuek, aldiz, barrura begira eta barrenetik euskaraz ari zen euskararen alde, ez esparru ideologikotik soilik.

Hendaia eta Hondarribiako bilkuren ondoren, Euskaltzaleen Biltzarra sortu zen iparraldean, 1902an. Aurreko urtean, Oñatiko Unibertsitatea itxiarazi zuen Espainiako Gobernuak eta, azkenik, 1918an, Oñatin Eusko Ikaskuntzen kongresua antolatu zela, aldi berri baten abiada gertatu zen. 1917an, Bizkaiko Foru Aldundian, abertzale jeltzaleek nagusitza lortu ondoren, autonomiaren aldeko mugimendua zabaldu zuten. Bizkaiko Diputazioan euskara ofizialtasuna irabazten hasi zen eta idatzi ziren Autonomia politikorako Estatutuen egitasmoetan, 1918 eta 1919an, euskara ofiziala izango zela aldarrikatu zen. Autonomia estatutu horiek ez ziren indarrean hasi, baina plaza publikoa irabazten hasi zen. Euskal abertzaleen ekimenez, euskara egitasmo politiko bihurtu zen.

ONDORIOA

XX. mendearen lehen hamarkadan, euskararen ofizialtasunaren aldarria zabaldu zen. Egunkari batean, *Euzkadi* (1913) izenekoan, euskarazko albisteak argitaratzen ziren egunero lehen orrialdean. Baina, bestalde, gizartearen eguneroko bizimoduan euskara esparruak galtzen ari zen eta gutxiengo baten hizkuntza bihurtu zen. Eta horretan dirau XXI. mendearen hasieran, gizarteko bizitza publikoan gutxiengoaren aparteko hizkuntza izaten. Zalantza barik, ofizialtasuna irabazi arren, oraindik ere euskararen etorkizun bizia bermatu gabe dago gure euskal gizartean.

AIPAMENAK

Agirreazkuenaga J., *Euskal herritarren burujabetza (1793-1919: Euskal herritarren autogobernu auziaren bilakaeraz: Foruen erakundetzetik Autonomia Estatutura.* Irun, Alberdania, 2012. 324 orr.

Agirreazkuenaga J. (ed.) *Barne-muinetako Sabin Arana Goiri. Gutunak I (1876-1903).* Donostia, Utriusque Vasconiae, 2010

Altzibar Xabier, "Bizenta Mogelen gabon kantak eta 1828ko bertsoak" *Bidebarrieta* 19 zbk., 2008. (www.bidebarrieta.com)

Arana Sabin, *Obras Completas.* Buenos Aires, 1965. 2301 orr., "El proyecto de Academia Bascongada del Sr. De Artiñano", *Euskal Erria,* 217 zbk., (Donostia, 1886)

Intxausti Joseba, "Euskararen ofizialtasuna: zenbait aurrekari historiko", *Euskera* 52 zbk., 2007, 1235-1249

Irujo Xabier. Urrutia Iñigo, *Historia jurídica de la lengua vasca (1789-2009*), Bilbao, IVAP-HAEE / UPV-EHU, 2014. 768 orr.

Iztueta Juan Ignacio, *Gipuzkoako probintziaren kondaira edo Historia zeinetan jartzen diraden argiro beraren hasieratik orain arte dagozkion barri gogoangarriak egin eta zuzendu deban.* Donostia, I. R. Barojaren moldiztegian, 1847

Lertxundi Anjel, "Ez dugu Voltaire merezi izan" *Egunkaria*, 1994-05-08

Madariaga Juan, *Sociedad y lengua vasca en los siglos XVII y XVIII*. Bilbo, Euskaltzaindia, 2014

Zelaieta Angel, *Foruak eta euskal literatura*. Donostia, 1978

OHARRAK

1. 1901eko irailaren 16an, Hendaian eginiko bere hitzaldian, Unamunoren iritzien zantzua agerikoa da: "No hemos venido a hacer la autopsia de un cadáver antes de que se descomponga, para dejar descrito su admirable organismo a los que hayan causado su muerte y en la esfera de la vida pretendan sustituirlo" Sabino Arana Fundazioa. 2001. Ikus, Zalbide M. "Hendai-Hondarribietako biltzarrak, XX. mendeko hizkuntz plangintzaren iturburu" Euskaltzaleen Biltzarraren mendeurrena. Bilbo: Sabino Arana Kultur Elkargoa, 2003.
2. "Al saludar a este pueblo, fue su primera palabra decirle: eres un pueblo que te vas, cosa que sabe de sobra el indígena y no ignora el extraño. Pero le añadió: estorbas a la vida de la universal sociedad, debes irte, debes morir, transmitiendo la vida que te queda al pueblo que te sujeta y te invade. Bonita manera de mantener los Juegos Florales (…) Quien quiera que conociera el carácter del señor Unamuno, comprendía perfectamente que su desfogue no merecía la pena de ser contestado ni de provocar protesta alguna (…) lo contrario de lo que entonces dijo pudo muy bien decirlo al día siguiente, seguramente lo ha dicho en alguna ocasión y es probable lo vuelva aun a decir." *Euzkadi*, 1901.
3. Agirreazkuenaga J. (ed.) *Barne-muinetako Sabin Arana Goiri. Gutunak I (1876-1903)*. Donostia, Utriusque Vasconiae, 2010, 254-258 orr.

JEL
JEL
ESKUAL
ESKU
ESKUARA
ESKUALDUN
ESKUDUN
ESKUERA
ESKURATU
ESKUALDE
ESKUBIDE
PIZTU
LARA
ZABAL
3+4
EUS
VAS
BAT
7=1
ARABA
GIPUZKOA
NAFAROA
BENAPARA
XIBERUA
LAPURDI
BIZKAIA
ZAZPI
3+4=1
KAUKASIAN NIG
3+1+3=1
ELPETXE
ABERI
ABINA
ABERE
BASOKO ABERETXUAK©
BIZKAYA
TARA
ANCIENT
LAV
EUZKADI
BILBO=BILBAO
amil — be — (o)
mil — ba — (o)
bil — ba — (o)
bil — ba — (o)
Bajo la escarpa
FORU
GERNIKA
IRUÑEA
BILB(A)O
DONOSTIA
BAIONE
DONIBANE
SARE
DURANGO
EIBAR
FREE
ZITIZEN
DITZUN
ZAZPI
ZUMALA
BERTEN
APERIB
KALTZA
JEL
TZALE
FORU
EZ
ZAINDU